# EUSKARAZKO BALIABIDEAK LOGOPEDA ETA ENTZUMEN ETA MINTZAIRA IRAKASLEENTZAT: HAUR LITERATURAREN CORPUSA


Miren Arantzeta (1) eta Josu Landa (2)

(1) Euskal Herriko Unibertsitatea. Gogo Elebiduna ikerketa taldea. (2) Ametzagaiña.


## 1. SARRERA

- Hizkuntza eta mintzaira nahasmenduak oso anitzak izan daitezke, eta hizkuntzaren maila desberdinei eragin diezaiekete.
- Esku-hartze goiztiarra oso garrantzitsua da eragozpena tratatzeko eta eragin negatiboak murrizteko.
- Bide horretan, berariazko hizkuntza materialak ezinbestekoak dira era sistematikoan lan egiteko.
- Euskarazko materialen eskasia nabarmena da, eta horrek arazoak sortzen ditu terapia eta irakaskuntza eraginkorrak eskaintzeko.

## 2. HELBURUA

**Logopeda eta mintzaira-irakasleei euskarazko hizkuntza-materialak sistematikoki aukeratzeko lanabes bat eskaintzea.**



## 3. METODOLOGIA

- 0 eta 8 urte bitarteko haurrei zuzendutako euskal literaturatik abiatuta corpus digital bat sortu dugu.

- Corpusa 428 liburuz osatuta dago, bi adin-taldetan banatuta: 0-4 urte bitartean eta 5-8 urte bitartean. Guztira, 392.413 testu-unitate, 34.331 hitz eta 8.637 lema ditu, hizkuntza-aniztasun handi bat eskainiz.




1.Irudia: Grafiko hauek adin-tarteen arabera corpusaren ezaugarriak erakusten dituzte.

## 4. EMAITZA: BILATZAILEA

- 0-8 haur literatura corpusean hizkuntza-materialak bilatzeko interfaze bat sortzen gabiltza.
- Momentu honetan, bilaketa irizpide lexiko eta fonemikoen arabera bideratu daiteke:

HITZ EDO HIZKUNTZA-SEGIDA ESPEZIFIKOAK BERRESKURATZEA:







EZAUGARRI FONEMIKOEN ARABERAKO BILAKETA:







## 5. ETORKIZUNEKO PLANGINTZA

- Proiektua hau bere hastapenetan dago.

- Etorkizunean, corpusa handitu eta egungo bilaketa-motorra hobetuko dugu, erabilgarritasun handiagoa emanez, silaba eta hitz egituren araberako bilaketak egiteko aukerak txertatuz.

- Bestalde, hizkuntz-materialen aukeraketa maila semantiko, morfologiko, sintaktiko eta gramatikaleko irizpideen arabera egiteko aukera gehituko dugu.

## 6. GARRANTZIA ETA APLIKAZIOAK

- Corpus hau baliagarria izango da esparru klinikoan eta hezkuntzan, logopedei eta mintzaira eta entzumen irakasleei hizkuntz-materialen aukeraketa errazteko.

- Ebidentzian-oinarritutako materialak sortzeko lanabesa izan daiteke.

- Kalitatezko eta pertsonalizatutako esku-hartzea eskaintzen lagunduko du.

## 7. ESKER ONAK


Euskara Institutua (UPV/EHU); Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila ( IT1439-22); Espainiako Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa, Ramón y Cajal kontratuetarako laguntzak – 2021 (RYC-033222-I), eta BBVA Fundazioaren Ikertzaile eta Sortzaile Kulturalentzat Leonardo Beka (2021).